



Zer diote legeek?



- **1978ko ESPAINIAKO KONSTITUZIOAK ZERA DIO HIZKUNTZARI BURUZ:**

3. artikulua:

- 1- El castellano es la lengua oficial del estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerla y el derecho a usarla.
- 2- Las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas de acuerdo con su Estatuto.



- **EUSKAL HERRIRAKO AUTONOMIA ESTATUTOA**

6. artikulua:

- 1- Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera, eta biztanle guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.



- **NAFARROAKO FORU-ELKARTEA. AMEJORAMENDU LEGEA.**

9. artikulua:

- 1- Gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala.
- 2- Euskarak ere hizkuntz ofizialtasuna izango du Nafarroako lurralde euskaldunetan.

- **EUSKARAREN FORU-LEGEA:**

2. artikulua:

- 1- Gaztelania eta euskara Nafarroako hizkuntza berekiak dira eta, horren ondorioz, hiritar guztiek dute ezagutu eta erabiltzeko eskubidea.



- **1958ko URRIAREN 4ko FRANTZIAKO KONSTITUZIOAK ZERA DIO:**

2. artikulua:

- Le Français est la langue de La République.



●●●● JAIOTAKOAK ●●●●

- Unai Astiazaran Makazaga (Maiatzak 1)
- Egoitz Maiora Otaegi (Maiatzak 15)
- Unai Arrese Juaristi (Maiatzak 19)
- Jokin Arriola Arregi (Maiatzak 26)

●●●● EZKONDUTAKOAK ●●●●

- Antxon Alvarez eta Sonia Zambrano (Maiatzak 2)
- Jon Iriondo eta Alicia Osoro (Maiatzak 16)
- German Meabebasterretxea eta Idoia Oñederra (Maiatzak 23)
- Nekane Etxaniz eta Aitor Agirrezabala (Maiatzak 23)
- Sonia Roman eta Jose Ruiz (Maiatzak 23)
- Ibare Vela eta Enrike Alvarez (Maiatzak 23)

●●●● HILDAKOAK ●●●●


- Jose Luis Gabilondo Juaristi, 54 urte (Maiatzak 15)
- M. Jesus Etxeberria Landabaso, 71 urte (Maiatzak 16)
- Herminia Lopez Bravo, 68 urte (Maiatzak 24)
- Isabel Laka Lizarribar, 81 urte (Maiatzak 29)

Jacinto Azpiazu Kruzelegi (1907-1975)



- 1907ko otsailaren 10ean jaio zen Errosario kalean. 6 anai-arreba ziren, laugarrena bera.
- Parrokiko monagiloa zela anekdota polita gertatu zitzaion. Meza laguntzen zegoela, "Misal" a aldareko leku batetik bestera aldatzean, Jazinto apaizaren atzetik pasatu beharrean, aurretik egin zuen. Demaseko errieta jaso ondoren, betirako laga zituen monagilo lanak.
- Gaztetan futbolean, esku pilotan eta beste kirol batzuetan aritzen zen. Eskola Publikoetan ikasi zuen.
- Lantegi askotan ibili zen lanean. Gabilondo y Cía.n, Alkortan, San Pedron, Soraluzeoko M. Zubiaurren eta azkenik, Sigman, beti ere tornulari lanetan.
- San Luis Gonzaga kongregazioko eta 'Adoración Nocturna'koa zen.
- Inazio Bereziartua zuzendari zela, Musika Bandan eta Parroki abesbatzean ibili zen Jazinto.
- Donostian egin zuen soldaduzka. 1936ko gerratean, urtebete Santoñan eta beste bi urte Puerto Santa Mariako gartzelan pasatu zituen.
- 1941ean Dina Lasarekin ezkondu eta 2 mutil eduki zituzten.
- Abertzale amorratua, zintzoa eta hitzekoa zen Jazinto. Famili girokoa, oso estimatua zen kuadrilan. Euskal kantak abestea, kuadrila giroan txantxetan jardutea eta jokoan egitea, irakurtzea eta, batez ere, emaztearekin pasiatzea zuen gogoko.
- Beti zegoen umore onez eta irribartsu. Sinismen handiko gizona zen.
- 1975eko urtarrilaren 15ean hil zen 68 urterekin.

Juanito Gorostiza



ETXEBERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI
zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 74 13 27 (Etxekoa) 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 908 77 07



Euskaldunon eskubideak

Eta administrazioan, zer diote legeek?

Komunitate Autonomoan eta Nafarroako zonalde 'mixto'an eta 'vascofono'an, edozein administrazioaren aurrean (POSTA, INEM, HAZIENDA,...) euskaraz mintzatzeko eskubidea aitortzen digu legeak. Iparraldean eta Nafarroako eskualde ez 'vascofono'an, legeez ez dugu inolako eskubiderik euskarari dagokionean.



Eta hartzen nauen funtzionarioak euskaraz ez badaki, eska al dezaket beste funtzionarioen bat edota itzultzailea?

Itzultzailea eskatzeko eskubide osoa daukagu. Halere, garbi izan behar dugu ezin dugula funtzionario bat euskaraz egitera derrigortu. Inork ez baitauka euskaraz jakiteko obligaziorik.



Eta euskaraz dakienik ez dagoela erantzuten badidate, zer egin dezaket?

Bi kasu bereizi behar ditugu: bat, administrazioak eskatuta baldin bagoaz, eta bi, gure intereseko arazoengatik bagoaz. Lehenengo kasuan, itzultzaile edo euskara dakienik ez bada, alde egin dezakegu protesta idatzia aurkeztu ondoren. Bigarren kasuan, berriz, gure protesta formala idatziz aurkeztu ondoren, gure eskaria edo-eta arazoa euskaraz idatzita aurkez dezakegu, hau onartzera beharturik baitaude.



Administrazioan euskaraz aurkeztu ditugun paperak itzultzeko eskatzen badigute, egin behar al da?

Komunitate Autonomoan ezin dizute itzultzeko eskatu, administrazioak berak egin beharko du, behar izanez gero.



Paper edo notifikazioen bat erdaraz iristen bazait, zer egin dezaket?

Legeak aitortzen dizu paper nahiz jakinarazpen edo notifikazioak euskaraz jasotzeko eskubidea. Beraz, erdaraz jasotakoa bueltatu dezakezu, euskaraz jaso nahi duzula adieraziz. Beti ere protesta formala instantzia baten bidez eginez, instantzia aurkeztuz gero jakinarazpenaren ondorioak indargabetu egiten baitira.



Igandean, ekainak 14, Sanmigeldarren eguna da. Urtero auzokide bati omenaldia egiten diote eta aurten Fernando Loiolaren txanda da. Fernando Sagarraga base-rrian jaio zen duela 39 urte eta horietatik 21 Mendaroko Kilimon futbol taldean eman ditu. Bertsotan ere aritzen den gizon honekin izan gara horrenbeste urtetan irauteko futbolak zer eman dion jakin nahirik.

BERNANDO LOIOLA

"Azkenengo partiduan zisko inda amaitxu naban penaren penaz"

- Aurten laga berri duzu futbola. Urte asko, ezta?

- Bai, jende gitxi egongo da hainbeste urtian mantendu izan dana futbol talde berdinian, nere kasuan Mendaroko Kilimon futbol taldean.

- Halere, hasi Elgoibarren hasi zinen.

- Bai, baina infantiletatik alebinetara pasatzeko garai-a ailegau jatanian Elgoibarraren ez nakan aukerarik segitzeko eta Mendaron taldea sortzen ari zianez bertarajun nitzan. Eta oin arte.

- Horrenbeste gustatzen al zaizu futbola?

- Asko, beti gustau izan jata. Nere anbiziua ez da izan talde inportantietan jokatzea, neri batez ere gustatzen jatana taldean sortzen dan girua da eta Kilimoian benetan giro berezixa dao.

Ekipo gitxitan egongo da Kilimoian dauan girua eta horrek asko lotzen zaitxu, gustura egotia oso inportantia da.

- Zailtasunak al dituzue taldea mantentzeko?

- Mendaron bai, ze ez dao jubenilen talderik eta dakagun zelaixakin eta presupuestua ere bajua danez, hara jutia asko kostatzen jako jendiari. Hala ere, probatzen dabanari gero kostau itxen jako lagatzia.

- Aurten jokatu duzu azken partidua.

- Bai, eta benetan esango dizut, amaitxu nabanean zisko inda geratu nitzan. Pena haundixa nakan jokatzen naban azkenengo partidua zalako. 26 urtekin ezkondu nitzanetik ibili naiz futbola laga nahixan, baina ezin. Aurten laga dot baina entre-

nadore laguntzaile bezela edo segitzia pentsatzen dot. Behintzat, era batera edo bestera, taldeari lotuta.

- Talde txikia izanik, dena zuek egin behar izan al duzue?

- Gertatzen dana da Mendaro herri txikixa dala eta zuzendaritzan urte askuan ibili da jende berdina. Normala da jendia aspertu eta erretzia eta, relebua, jende berrixa eskatzia. Iaz egon zan momentu bat inor prest ez zauana eta hiru jokalaria veteranok esan genduan lagunduko genduala.

- Gustatzen al zaizu futbola ikustea?

- Nahixao dot lelenko mailako ekipuen partiduak baino herri mailakuak ikustia, jubenilak, regionalak eta hola... Neretzat askoz emozio gehixo dake eta enkanto berezi bat.

- Mundiala hasi da. Fabroritorik?

- Jende guztixak esaten dau Brasilek irabaziko dabala baina nik pentsatzen dot zorte piskatekin Espainiak sorpresa bat emango dabala.

- Futbolaria eta betsolaria. Hau ere afizioz?

- San Migelen Ziarda ibiltzen zan eta inor ez zan atrebitzen hari erantzuten. Ni hasi nitzan eta ondo edo gaizki, erantzuteko bezela defenditzen naiz behintzat, eta afarixetan beti prest nao bertsotan itxeko, asko gustatzen jata.


- Igandean omenaldia eskainiko dizute. Ilusiorik?

- Norberan auzokidiek holako omenajia itxiak beti itxen dau ilusiuua nahiz eta badauden beste asko ni beste edo gehixo merezi dabenak.

BESTEAK ESANA

"Futbol-zelaian, Jaun eta Jabe"

GURUTZ AIZPURUA, Kilimoiko jokalaria.





Euskaldunon eskubideak

Zein dira euskaldunon hizkuntz eskubideak...



UNIBERTSITATEAN?

Komunitate Autonomoan, legez, Unibertsitatean ikasle orok irakaskuntza zein hizkuntzatan jaso nahi duen aukeratzeko eskubidea du, gero, praktikan, eskubide hori ziklo edota asignatura batzuen eskaintzara murrizten bada ere. Nafarroan eta Iparraldean ez.

Azterketak euskaraz egin ditzaket, ahoz eta idatziz?

Komunitate Autonomoan bai, ahozkoak nahiz idatzizkoak. Irakasleak euskaraz ez badaki, itzulpena Unibertsitatearen kontura joango litzateke.



POLIZIAREKIN?

Polizia erdaraz mintzatzen bazait, zer egin?


Komunitate Autonomoan euskara erabiltzeko daukazu eskubi-deari helduz, poliziari euskaraz erantzun diezaiokezu.

Dokumentazioa eman behar al diet erdaraz eskatzen baidate?

Bai, kasu guztietan. Euskara ofiziala izateak ez baitzaitu gaztelania ezagutu beharretik babesten, gaztelania derrigor jakin behar baituzu.

Udaltzaina, ertzaina nahiz beste poliziak, gauza bera?

Lege aldetik, bai.



OSASUNEAN?

Nire medikuak ez daki euskaraz, alda dezaket?

Euskal Herri osoan sendagilea aukeratzeko eskubidea dugu, beraz, euskaldunik baldin badago, alda daiteke.

Eta herrian sendagile euskaldunik ez badago, eska dezaket euskaldun bat ekar dezaten?

Ez, sendagilearekin dugun harremana pribatua delako, nahiz eta diru publikoarekin ordainduta egon. Halere, salaketa politikoa bidera dezakegu eta alkatearen ardura izango litzateke herrira mediku euskalduna ekartzea.

Ospitalean gauza bera?

Bai, legea ez dago zure alde. Hemen ere salaketa politikoa egin beharko litzateke. Halere, kasurik gehientsuenetan ez dizute kasurik egingo.



● **Goitek System, Toribio Etxeberria sarietarako hautagaia**

Hil honen 29an, Eibarko IX. Toribio Etxeberria Enpresa Sariaren irabazleak zein diren ezagutzera emango da. Sorkuntza eta berrikuntza teknologikoen atalean hiru enpresa dira saria irabazteko aukera dutenak, tartean, Elgoibarko Goitek System. Lantegi honek plantako gestio integralerako sistema bat aurkeztu du. Sariaren zenbatekoa 3 milioi pta.koa da. Honez gain, Eibarko Tekniker Zentroan proiektua garatzeko 5 milioi pta.ko dirulaguntza eta trofeoa ere ematen dira. 1996an Elgoibarko beste enpresa batek jaso zuen saria teknologia berrikuntzen arloan, Ingeniería Sanitaria Baskinsa enpresak, hain zuzen. Sari banaketa ekitaldia hilaren 29an izango da Jose Antonio Ardanza lehendakariaren eskutik.

J. L. Ansola "Gatito" elgoibartar errefuxiatua Carabanchelen gartzelaratu dute

Manifestazioa antolatu du Amnistiaren Aldeko Batzordeak

Jose Luis Ansola, 61 urteko elgoibartarra, Frantziatik kanporatu zuten hilaren 15ean bertako agintariak eta dagoeneko Madrileko Entzutegi Nazionaleko Javier Gomez de Liañoren aurrean deklaratu du. Asteartean, hilak 16, 'Gatito'k ukatu egin zuen epailearen aurrean inoiz ETAko kidea izan denik. Ansola 1980an gertatu zen atentatu bateko eragilea eta laguntzailea izateagatik epaituko dute. Atentatua Bizkaiko Ea eta Ispaster herrien artean gertatu zen eta sei guardia zibil eta ETAko bi kide hil ziren.

Jose Luis Ansola 'Gatito' edo 'Pello Zaharra'k konfinazio agindua haus-teagatik ezarritako 5 hilabeteko gartzela zigorra bete berri zuen Frantziako



Pau-ko espetxean. Aske geratu bezain pronto, frantziarrek espainar poliziaren esku utzi zuten Huescako Somport-eko mugara eramanez.


Manifestazioa larunbatean

Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Batzordeko kideek "tratu txarrak jasan ditza-keen kezka" dutela adierazi digute. Izan ere, "azken boladan poliziaren eskuetatik pasatzen diren preso guztiek jasan dituzte torturak". Duela 30 urte Elgoibartik alde egin zuen elgoibartar honen atxiloketa salatuz, Amnistiaren Aldeko Batzordeak manifestazioa antolatu du zapatarako, hilak 20. Manifestazioa arratsaldeko 19:30ean izango da Plaza Handian hasita.



Omenaldi beroa Fernando Loiolari

Sanmigeldarren Egunean, Fernando Loiola Kilimon taldeko futbolari ohiak omenaldi beroa jaso zuen auzotarren aldetik. Goizean 'Murkaikupe' Eskuz banakako V. Pilota



altor zabala

Txapelketaren finalak jokatu ziren. Unai Loiolak 22 eta 18 irabazi zion Xabier Loiolari. Bazkaltzeko elkartu ziren 138 lagun txaloen artean, Fernando Loiolak omenaldi beroa jaso zuen. Auzoko 8 mutikok aureskua dantzatu zuten eta Ziardak Fernandori hainbat bertso eskaini zizkion. Azken honek, oso emozionaturik, Ziardari erantzuteko tenplea izan zuen.

Aupa Txuri-Urdin!

Musika Bandak Real Sociedad futbol taldearen Txuri-Urdin himnoaren bandarako bertsioa estreinakoz jo zuen domekan. Kasik ordubetez luzatu zen saioaren amaieran, Ricardo Sabadié himnoaren egilea eskenatokira igo eta garaikur bat jaso zuen alkatearen eskutik. Egileak berarekiko izandako begirunea bihotzez eskertu zion Elgoibarko herriari eta bereziki Musika Bandari, "Elgoibar baita horrelako errekonozimendua egiten didan Gipuzkoako lehenengo herria eta bakarra".

500 lagunetik gora Ikastolako Guraso Eguneko bazkarian

Joan den zapatuan Ikastolak ospatutako Guraso Egunean haurrentzako eta gurasoentzako jolasak egin zituzten goizean. Eguerdian, 500 lagunetik gora elkartu ziren bazkaltzeko goiko jolastokietan. Ondoren, BBB 2



amaitu duten 22 neska-mutilei diploma eman zitzaizen eta urte osoan taldeak entrenatzen ibili diren 27 lagunei opari bana eman zitzaizen. Jaieguna dantza saio alaiarekin amaitu zutela azaldu digute.



Euskaldunon hizkuntz eskubideak hainbat PAPER eta AGIRIri dagokienean

España. Ministerio de Justicia. Registro Civil. España. Justicia Ministeriatu. Erregistro Zibila. Serie V. N.º 039605/94

Registro Civil de Provincia

1000a Erregistro Zibila. Provincia

CERTIFICACION EN EXTRACTO DE INSCRIPCION DE NACIMIENTO JAIOITZE INSKRIPZIOAREN ZIURTAPEN LABURTUA

Nombre 1 *	Apellido	Padre	Madre	(1)
Fecha del nacimiento	Lugar	Distrito	Municipio	(2)
Sexo	Estado civil	Profesion		

Lugar del nacimiento: Municipio, Distrito, Provincia, País

Fecha de expedición: día, mes, año

Lugar de expedición: día, mes, año

Inscripción: especificar, cantidad y forma del certificado (3)

Elaborado en el Registro Civil de Provincia

1. Se inscribió en libro o en sistema, o en certificado de libro, de acuerdo a lo establecido en la Ley Orgánica del Registro Civil, en sus modificaciones, y en el Reglamento del Registro Civil.
2. Se inscribió en el libro o en sistema, o en certificado de libro, de acuerdo a lo establecido en el Reglamento del Registro Civil.
3. Se inscribió en el libro o en sistema, o en certificado de libro, de acuerdo a lo establecido en el Reglamento del Registro Civil.

JAIOTZA AGIRIAK

Jaiotzako dokumentazioa euskaraz egiteko eskubidea badaukagu. Inskripzioa, ordea, askoz zailagoa suerta daiteke, Erregistro Zibila Estatuari baitagokio. Iparraldean eta Nafarroako zonalde 'mixto' an eta ez 'vascofono' an ezin daiteke euskaraz inskribatu.

IZEN-DEITURAK

Euskal Herriko lurralde guztietan jar daitezke izenak euskaraz.

Eta erdaraz jarritako izena euskarara alda al daiteke?

Hegoaldean bai, eginpide labur baten bidez norberaren Erregistro Zibilean. Iparraldean, berriz, ezin da aldatu.

Eta abizenak gaurkotu al daitezke, euskarazko ortografian idatziz?

Hegoaldean bai, hainbat agiri aurkeztu behar dira baina ez dago batere eragozpenik. Iparraldean ezin da.

Eta erdal abizenak euskaratu al daitezke?

Hegoaldean bai, tramitazio baten bidez. Iparraldean ezin da.


NORTASUN AGIRIA ETA PASAPORTEA

Euskaraz lor al daitezke?

Hegoaldean, gaur egun, dokumentu hauek erdara hutsean bakarrik jaso daitezke. Halere, legeari kasu eginez gero, administrazioak paperak euskaraz ere luzatzeko obligazioa dauka. Iparraldean ezin da.

EZKONTZA

Ezkontza zibilari dagokionean, euskara ofiziala den lurraldeetan epaileari eskatuz gero, euskaraz egin daiteke; epailea euskalduna ez bada, interpretea eska dezakegu. Iparraldean ofizialki ezin da euskaraz ezkondu.



**INTERESEKO
TELEFONOAK**

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 943 461111
 Txanda hartzeko . 943 743354
 Planning-a 943 742950
 Alkoholiko Anonimoak . 943740385
 D.Y.A (anbulantzia) . 943 464622
 Gurutze Gorria . . 943 743864
 Mendaroko Ospitalea . 943 756264
 Odol Emailak . . . 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak . . 943 740442
 PESA (Eibar) . . . 902 10 12 10
 Taxi geltokia 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua . . 943 744366
 Udal Kirol Patronatua . 943 744415
 Kultura Zerbitzua . . 943 742158
 Mendaroko Udala . . 943 756100
 Ongizate zerbitzua . . 943741008
 Udaletxea 943 741050
 Udaltzaingoa 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra . . . 943 741626
 Kiroldegia 943 744415
 Kontsumo Bulegoa . . 943 743088
 Liburutegia 943 743525
 Musika Eskola . . . 943 742145
 Mintxeta 943 744315
 Parrokia 943 740842
 Postetxea 943 741547
 Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza . . 943 740296
 Zaharren Biltokia . . 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 943 74 21 41
 HHI (EPA) 943 74 08 80
 Herri Eskola 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 943 74 02 67
 Ezenarro (Meka) . . 943 74 44 80
 Ikastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea . . . 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
 El Diario Vasco . . . 943 74 40 73
 El Correo Español . . 943 74 10 82
 Egin 943 10 84 21
 Zazpiki Irratia . . . 943 74 34 74

26
ostirala

18:30 ODOL
ATERALDIA
 P. M. Urruzuno 8an

19:00 ALKOHOLIKO
ANONIMOen
HITZALDI IREKIA
 Kultur Etxean

19:00 GAZTE
ASANBLADAren
BILERA
 Gaztetxean

20:00 KONTZERTUA
The body snatchers eta
Toxic Skueak
 Gaztetxean

22:15 ZINEA
 "Esfera"

27
larunbata

12:00 ZAZPIKIren
BILERA
 Ganbaran

19:30-22:15 ZINEA
 "Esfera"

19:30 GAZTE
ASANBLADAren
MANIFESTAZIOA
 Irterea Madalan

28
igandea

19:30-22:15 ZINEA
 "Esfera"

29
astelehena

22:15 ZINEA
 "Esfera"

1
asteazkena

22:30 ZINEA
 (Izenburua zehaztu gabe)
 Plaza Handian
 Antolatzailea: Euskal
 Presoen Aldeko Plataforma
 Alguntzailea:
 Ongarri Zine Kluba

2
osteguna

19:30 MAHAINGURUA
 Gaia: Euskal presoak
 Partehartzaileak: Salhaketa,
 Senideak eta preso ohi bat.
 Kultur Etxean
 Antolatzailea: Euskal
 Presoen Aldeko Plataforma

3
ostirala

22:30 AIRE LIBREKO
ZINEA
 "Mercury Rising"
 Plaza Handian
 Antolatzailea:
 Ongarri Zine Kluba

22:30 ANTZERKIA
 Antzeztaldea: Lakrikun
 Antzezlana: "Zorioneko
 Oporrak"
 Herriko Antzokian
 Antolatzailea:
 Elgoibarko Izarra

ZINEA



Esfera

Ozeano Pazifikoan estralurtarren OVNI bat dago urazpian murgilduta. Aditu talde bat bertara doa ikerketa lanak egitera. Ikertzaileak espaziontziairen barrura sartzen dira eta esfera bat topatzen dute bertan. Ikertzen daudela, espaziontziairen barruan harrapatuta geratzen dira eta benetan gauza arraroak hasiko dira gertatzen.

Zuzendaria: Barry Levinson.
Antzezleak: Dustin Hoffman, Sharon Stone, Samuel L. Jackson.



“Euskaldun izatearen harrotasunak, zuhurtasunak, ekinaren pozak eta kemenak bakarrik ziurta dezakete euskararen eta euskaldunon etorkizuna”



JON ETXABE JAUREGI

Zumaian jaio zen 1959. urtean

1990etik Elgoibarren bizi da

Nazioarteko abokatu lanbidez eta Abokatu Elkargoko Euskara Batzordeko kidea.

- Espainiako eta Frantziako Konstituzioek erdara jakitera derrigortzen gaituzte. Euskara, berriz, kasurik onenean, eskubide bat baino ez da.

Kontuan hartu behar dugu gure historian zehar euskara baserriarren hizkuntza arloa izatetik hiritar urbano guztien eskubide izatera igaro dela eta gaur egun edozein giza arlotan euskara jakin beharra aurreikusten dela. Beraz, eskubide izatetik behar izaterako bidean goaz eta etorkizunean legeak beharrezkotzat joko du hainbat arlotan, denetan ez baldin bada ere.

- Jon, aurreko lau asteetan euskaldunon eskubideei buruz jardun dugu, baina ez al dago alde handiegia euskaldun batzuen eskubideetatik besteenetara? Zergatik hain egoera ezberdinak?

Iparraldeari dagokionez, 1789ko Iraultza Frantsesak modernitatearen izenean hizkuntza bakar bezala frantsesa onartu zuen, Estatu zentralizatu eta errepresioa areagotu zuen frantses batasunaren izenean. Hegoaldeko historia desberdina izan da; foruak 1876 urtean ezabatu ziren eta ondoren, hizkuntz eskubideak onartzen zituzten bi autonomi estatu to izan ditugu. Hori dela eta, eta konparatiboki, euskara hemen erresistentzia baldintza hobean izan da.

- Administrazioan, poliziarekin, osasun arloan eta gainontzeko esparruetan daukagun eskubideak ezagutu ditugu baina, zoritxarrez, askotan ez dira errespetatzen. Zer egin daiteke kasu hauetan?

Argi jakin behar dugu Administrazioako edozein esparrutan gu garelako pertsonarik errespetagarrienak eta errespetuz eta behar den bezala adieraziz gero, ez dago zertan ez azaldu euskaraz hitz egiteko eskubidea, eta noizbehinka ahotsa altxatzen eta bakoitza bere tokian jartzeko beldurrik ere ez da izan behar.

- Beste batzuek diotenez, berriz, euskaldunok legeak lagatzen digunaren azpitik omen gabilta kasu askotan.

Euskaldunok, euskararekiko oso jende makala eta akonplejatua garelako ondo demostratu dugu. Ez dugu inoiz jakin izan gure politikoak eta, beraz, administrazio-buruak, euskara jakitera behartzen, nahiz eta legeak horretarako aukera eman. Oraindik ere nazionalistatzat aurkezten den hamaikaxok barra-barra gaztelaniaz egiten dituzte beren bilerak. Herritarrok esan behar diegu behingoz 'nahikoa da eta utz iezaiguzue tokia euskaldunoi!'

- Amaitzeko, gaur egungo legediarekin garantizatu al daiteke euskararen eta euskaldunon etorkizuna?

Ez gaurko legeak ez hurrengo lege hobe batek ez dute ezer garantizatuko. Bakarrik euskaldun izatearen harrotasunak, zuhurtasunak, ekinaren pozak eta kemenak ziurtatuko dute gure izan nahia.



● **Hil amaierako azoka uztailaren 24an izango da**

Uztailaren azken larunbateko azoka hilaren 25ean, Santiago Eguna suertatu da aurten. Jaieguna denez, Udalak azoka egun bat lehenago egitea erabaki du, hilaren 24an hain zuzen.

● **Goitek Elgoibarkoenpresak akzesita eskuratu du Toribio Etxeberria lehiaketan**

Elgoibarko Goitek enpresak Eibarko Toribio Etxeberria enpresa lehiaketan hartu du parte. Joan den astelehenean eman ziren ezagutzera zein izan diren saridunak. Berrikuntza eta sorkuntza teknologikoen ataleko irabazlea Lasarteko enpresa bat izan da eta Goitek-ek lehenengo akzesita eskuratu du. Akzesitak ez du dirutan saririk izaten. Sari banaketa ekitaldian Juan Jose Ibarretxe lehendakariordea, Roman Sodupe Diputatu Nagusia, Gillermo Etxenike Ekonomia Diputatua, Eibarko alkatea, Tekniker-eko zuzendaria eta beste zenbait pertsonaia ezagun bildu ziren.

● **San Fermin jaiak Kultur Etxeko pantailan ikusteko aukera**

Urtero bezala, Udal Kultura Sailak hitzaldi gelan duen pantaila handian San Ferminetako entzierroak zuzenean ikusteko aukera eman nahi die herritar guztiei. Uztailaren 7tik aurrera (asteartea)


Euskal presoak Euskalerriratzearen aldeko herri plataforma sortu da

Hainbat alderdik, elkartek eta pertsonak bat egin dute helburuekin

Joan den ostegunean “Euskal Presoak Euskalerriratzearen Aldeko Herri Plataforma”ren aurkezpena izan zen Kultur Etxean. Elgoibarko elkarte, alderdi politiko, sindikatu eta norbanako ugarik osatzen dute plataforma hau, nahiz eta argazkian batzuk bakarrik agertzen diren. Herritar eta elkarte mordoska batek euren atxikimendua azaldu dute plataformaren helburu eta filosofiarekiko, hala nola, EA, IU, HB, ELA, LAB, EILAS, CCOO, Elkarri, Errotatxo, Morkaiko, Gazte Asanblada, Jarrai, Zazpiki, Leizarpe Espeleologi Taldea, Ekekei, Senideak, Ongarri Zine Kluba, Taupada eta Haritz Dantzari Taldea. Aurkezpenean adierazi bezala, “sakabana-keta politika salatzeko, presoen giza eskubideak aldarrikatzeko, azken finean, presoen hurbilketa eskatzeko eratu da Elgoibarren plataforma hau, beste hainbat herritan bezala. Ezin zaio bizkarra eman



gizartearen gehiengoaren nahiari. Honen lekuko dira, esaterako, Eusko Legebiltzarrean zein hainbat Udaletan, Elgoibarkoan tarteko, lortu diren akordioak”. Plataforma asteartero bilduko da Kimetz Elkartearen eta edozein izan daiteke partaide. Plataforma eratzea lehenengo urratsa baino ez da, “ikusiko dugu nola erantzuten duen bai Udalak eta bai herriak”. Horregatik, “herritarrei euren atxikimendua adieraztera gonbidatzen diegu presoek aldeko manifestua sinatuz eta antolatu ditugun ekintzetan parte hartuz.



aitor zabala

Altzolatarren protesta tren geltokia kendu nahi dutelako

Astelehenean, ekainak 29, Altzolako auzotarrak protesta ekintzak egiteari ekin zioten Eusko Trenbideak enpresak Altzolako tren geltokia kendu nahi dutelako. Horrela, bada, Donostiatik datorren trenaren geldiarazteko, argazkian ikusten den bezala, kartoizko kaxa hutsak jarri zituzten baina trenak bere bidea jarraitu zuen, protestak inolako eraginik izan ez zuelarik. Auzotarrek protestarekin jarraitzeko asmoa dute eta dagoneko J. M. Oruesagasti alkateordearekin izan dira arazoa konpontzeko eskatzeko.



Eibar-Gasteiz autopistaren kontrako protesta

Gazte Asanbladak deituta, 50 bat gaztek manifestazioa egin zuten joan den zapatuan “errepresioaren eta autopistaren kontra” protestatzeko. Gazteek Madalatik Plazarainoko bidea egin zuten errepresioaren aurkako kontsignak oihukatuz eta tanbor batekin zarata ateraz. Argazkian, San Frantzisko kalean egin zuten jarrialdia.